

## **Autodeterminazioaz independentzia**

Martxoaren 1ean Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan buruturiko hauteskunderen ostean eta eztabaida politikoa Gasteizko Gobernuaren osaketan kokatu denean, Euskal Herriak sakoneko aldaketa politiko eta sozialerantz urratsak egin ditzan aztertu beharreko sakoneko gaien inguruko perspektibak eta erreferentziak aurkeztu nahi ditu Ezker Abertzaleak.

### **Marko estatutario agortua - Zilegitasunik gabeko Legebiltzarrak**

Alderdi unionistek -PSOEk eta PPK- ezarritako joko-arau politikoen arabera EAEn eginiko hauteskunderen Gasteizko Legebiltzarraren osaketa desitxuratu dute, euskal jendartearen sektore baten aurka inposatutako apartheid politikoa sakonduz. Lehenik, marko konstituzional-estatutario agortu bat baldin bagenuen, orain gainera Madrilen erabakitako salbuespen legediek manipulaturiko bi Legebiltzar dauzkagu: Iruñekoa eta Gasteizkoa. Herri borondatea ordezkatzeko ez duten heinean, zilegitasunik gabeko Legebiltzarrak dira.

Lizarra-Garazitik gaurdaino espainiar konstituzionalismoak diseinaturiko eta garaturiko estrategiak, legez kanporatzeak eta eskubide zibil eta politikoen urraketa oinarri dituen, urrats kualitatibo berri bat egin du azken hauteskundeetan eta bi parlamentu autonomoak unionismoaren esku utzi ditzake, prozesu politikoa eta marko juridiko-politikoaren edozein aldaketa edota berrikuntza baldintzatuzko xedearekin.

Beste behin ere, berresten dugu: marko konstituzional-estatutarioak ez du sinesgarritasunik, ez du garapen estrategikorako gaitasunik, ez eta, orain inoiz baino argiago, bere kudeaketarako zilegitasun demokratikorik ere.

### **Errealitate estruktural berean oinarrituriko Gobernu aldaketa**

Errealitate estruktural honen aurrean, PSE-EE eta PNVren arteko botere-kota eta kudeaketa politiko-instituzionalaren inguruko lehiak, Lehendakaritza eskuratzeko Ibarretxe eta Lopezen arteko lehiak, bere garrantzia ukatu gabe, Euskal Herriaren onarpen eta eskubide demokratikoen aldeko konfrontazio politikoa eta gatazkaren oinarrietan dauden sakoneko arazoak distortsionatu edo gutxietsi nahi ditu.

PSE-EEK "aldaketarako" egiten dituen proposamenak, PPrekiko konpromisoek baldintzatuta, euskal jendarteak aldarrikatzen duen aldaketa sozial eta politikoa antitesia dira. Duela bi urteko Nafarroako egoerarekin egungo EAEn egoerak duen antzekotasunak adierazten digu konstituzionalismoa Euskal Herrian eskenatoki demokratiko bat eraikitzeke eman beharreko aldaketa politikoak baldintzatzen saiatzen ari dela. Nafarroan eta Baskongadetan aldaketa politiko eta soziala PPrekiko elkarlan eta akordioen eskutik etor daitekeela iradokitzea iruzur politiko itzela da eta ezer erakustekotan, alderdi sozialistaren PPrekiko menpekotasuna da.

Dokumentu esplizitu eta solemne batean PNVen aliantza "egonkorretarako"

PSE-EEri egindako proposamenak PNVren zuzendaritzaren posizio politikoa argiro erakusten du: Estatuaren estrategiaren menpekota eta politikoki neutralizatua. PSOEn besotara bota izanak, Eusko Jaurlaritzan jarraitu ahal izateko akordioak erregutuz, Lizarra Garazi, Ibarretxe plana, galdeketak eta abar luze bat bide bazterrean utzita, estrategiarik gabeko eta belaunikatutako PNV erakusten du.

Euskal Herriak ukatuta eta eskubide demokratikorik gabe jarraitzen duen bitartean, herri borondatea salbuespen legeen bidez urratzen den bitartean, eskubide zibil eta politikoak sistematikoki urratzen diren bitartean, 800 preso politiko inguru dagoen bitartean, sufrimendu anitz eragiten duen konfrontazioak dirauen bitartean, PNVk "kolpe instituzionalaz" hitz egiteak eta aldi berean PSOeri "Arriagako Izpiritua" eta Ajuria Eneko paktuko oinarri berdinak dituen egonkortasun-akordio bat eskaintzeak hipokresia ikaragarria erakusten du. PNV politikoki eta ideologikoki hustu egin da; egun aparatu politiko hutsa da, zeinaren lehentasuna eta helburua nagusia, kosta ahala kosta instituzioetan jarraitzea eta bere interes korporatiboen gestioa egitea da. PSOE eta ezker abertzalearen arteko ustezko "pinza"-ren argudio maltzur horrek erakusten du ezerk baino hobeto PNV edozer gauza egiteko prest dagoela bere negozio politikoaren kota defendatzeko.

Laburbilduz, hauteskunde osteko egoera honetan eztabaida politikoa botere eta kudeaketa interesek eta pribilegioak, kargu instituzionalak eta negozioak galtzeko beldurrek baldintzatuta dago. Eta hori guztia, esan bezala, Euskal Herriak ukatuta eta gatazka politikoak zabalik jarraitzen duen bitartean eta krisi ekonomiko larriaren aurrean langile, langabetu, merkatari, autonomo eta abarrek Zapatero, Ibarretxe eta Sanzen eredu neoliberalaren aurrean alternatiba ekonomiko eta sozialak aldarrikatzen dituzten bitartean.

Hala bada, inauteri politiko horren amaiera edozein delarik ere, egoera antidemokratiko eta are ezegonkorrago baten aurrean gaude. Eredu politiko zein sozialean terapia berriak eta demokratikoak eskatzen dituen egoera baten aurrean, alegia.

### **Aldaketa politiko eta sozialerako eskenatoki demokratikoa**

Aldaketarik gabeko aldaketarako eskaintza honen aurrean, ezker abertzalea ziur dago euskal herritarren gehiengoak alternatibak eskatzen dituela, aldaketa politiko eta sozialerako berme izango den eskenatoki demokratiko bat eskatzen duela.

Euskal Herriaren aitortza eta euskal herritarren borondatearen errespetuan oinarritutako eskenatokia, proiektu politiko guztiak ahalezko egingo dituen.

Ezker abertzaleak ekarpena egin nahi dio etorkizun horren eraikuntzari, marko politiko demokratikoa erdiesteko alternatiba erreal bati. Beste behin ere, Euskal Herriaren dugun konfiantza agertu nahi dugu eta adierazi, sinetsita gaudela euskal jendartearen aldaketa politikorako baldintza objektibo eta subjektibo daudela.

Horregatik guztiagatik, ezker abertzaleak berriro ere adierazi nahi du indar soberanista eta independentisten metaketa egin beharra dagoela, egungo

ukazio eta inposaketa mekanismoak nahiz eredu ekonomiko eta sozial neoliberala zaharberitu nahi dituztenen aurrean alternatiba eraginkorra gorpuztuz eta estrategia independentista eraginkorra eraikiz. Espazio politiko, sozial eta sindikal horrek bi eginbehar nagusi ditu:

-Prozesu demokratiko bat artikulatzea, zeinak elkarrizketa eta negoziazioaren bidez, proiektu politiko guztiak ahalezko egingo dituen eskenatokia ezartzea ahalbideratuko duen.

-Aldaketa sozialaren aldeko borroka aitzinatzea, zeinak langile eta herri sektoreak politika ekonomiko eta sozialen erreferentzia nagusi bilakatuko dituen.

Helburu horrekin, datozen asteetan ezker abertzaleak analisi eta kontraste dinamika bat abiatuko du eragile politiko, sindikal eta sozialekin.

Euskal Herria, 2009ko martxoaren 16a